



**RASSF-AREN ALERTAK ETA JAKINARAZPENAK
ELIKAGAIAK**

2009ko 2. LAUHILEKOA


elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

2009ko 2. lauhilekoan zehar, Europako Informazio Azkarraren Sistemak (RASFF) elikagaien 947 alerta eta jakinarazpen berri eman du. Jakinarazpen guztietatik, kutsadura iturriei dagozkien zenbatekoak honako hauek dira:

Identifikatutako arriskuak	Zenbatekoak
Mikotoxinak / biotoxinak	% 26,5
Kutsadura kimikoa	% 14,5
Kutsadura biologikoa	% 20,5
Metal astunak	% 9
Hondakinak	% 10
Migrazioak	% 2,5
Kutsadura fisikoa	% 4
Iruzurrak	% 8
Produktua gaizki kontrolatuta	% 5



Mikotoxinek eragindako kutsaduren artean, kasu gehienetan, % 85,5an, kutsadura **Aflatoxinek** eragindakoa da eta, horrelakoetan **kakahueteak** kutsaduren % 36 eragin du. Bestalde, kasu gehienetan (% 36,5) kakahuetea **Argentinatik** zetorren. Bigarren produktu garrantzitsua **pistatxoa** izan da, aflatoxinek eragindako kutsaduren %26,5, eta kasuen %49an jatorria Iran izan da.

Kutsadura biologikoei dagokienez, **Salmonella sp.k** kutsaduren % 36 eragin ditu. Kasuen % 1 bakarrik **Salmonella enteritidis** espezieak eragin du. Kasuen % 6 **Salmonella typhimurium** espezieak eragin du, eta txerria kasuen % 55,5etan hartu du parte. Haragiaren jatorria **europarra** izan da kasu guztietan (% 100). Talde horretako protagonista **Salmonella sp.** izan da (kasuen % 93). Eta alerta gehien eragin dituztenak (% 38) **belar aromatikoak** izan dira. Gehienak asiakoak


izan dira (% 80). Oilategiko-hegaztiak dira bigarren produktu jakinarazpen eragilea, %31an, europa izanik jatorria kasuen %85an.

Kutsadura kimikoari dagokionez, **Koloragarriak eta Gehigarriak** izan dira eragile nagusiak (kasuen % 39,5). Mota askotako produktuak dira inplikatuak, baina ez dago besteekin erkatuz gero, zenbateko handiagoa duen produktu aipagarririk. Inplikaturako produktuen etorki herrialdeak Asiakoak dira gehienbat.

Metal astunak gero eta gehiago azaltzen dira jakinarazpen eta alertetan. Bigarren lauhileko honetan aipagarria **Kadmioa, %35a**, karramarroa izanik jakinarazpenetan agertzen den produktua kasuen %35,5tan, Frantzia jatorria delarik %82an. Bigarrena portzentaian, **Merkurioa %34**arekin. Ezpatarraina da produktu inplikatu kasuen %53an, jatorria oso banatuta dagoelarik: Europa%31a, Asia %31a eta Amerika %30a.

Mikotoxinak/Biotoxinak	250	Aflatoxinak	214(85,5%)	kakahueteak	77(36 %)	Argentina	28(36,5%)
				pistatxoak	57(26,5%)	Iran	28 (49%)
Kutsadura biologikoa	196	Salmonella sp.	71 (36%)				
		<i>S. enteritidis</i>	1 (1%)	arrutzak	1 (100%)	Espainia	1 (100%)
		<i>S. typhimurium</i>	4 (6%)	txerria	3(75%)	Europa	3 (100%)
		<i>Salmonella sp.</i>	66 (93%)	oilategiko hegaztiak	20(31%)	Europa	17(85%)
				belar aromatikoak	25 (38%)	Asia	20 (80%)
		Listeria monocytogenes	30 (15,5%)	marrazoa	12 (40%)	Vietnam	12 (100%)
Kutsadura kimikoa	135	Koloratzaile eta gehigarriak	53 (39,5%)	espeziak, saltsak	ez dago produktu nabariagorik		
				goxokiak,ozpinetakoak	besteak baino		
Metal astunak	89	Kadmioa	31 (35%)	karramarroa	11(35,5%)	Frantzia	9(82%)
		Merkurioa	30 (34%)	ezpatarraina	16 (53%)	Europa	5 (31%)

Kutsaturako produktuen jatorrizko herrialdeak hurrengoa izan dira:



Asiari dagokionez, kutsatzaileen % 20 Turkiakoak dira, jarraian Txina dugu: kasuen % 19. Europari dagokionez, jakinarazpen gehien sortzen duten herrialdeak Alemania kasuen % 12 eta Frantzia % 11,5 dira. Azkenik, Amerikaren kasuan AEB dira nabarmen jakinarazpen gehien sortzen dutenak (%33,5).

AURREKO LAUHILEKOAREKIN ERKATZEA

Aurreko lauhilekoarekin erkatuz gero, ondorengoa da azpimarratzekoa:

- Aipagarria da kadmio jakinarazpenen igoera, % 11,5tik lehen lauhilekoan bigarren lauhilekora, berriz % 35.
- Nitrofurano jakinarazpenen jeitsiera garrantzitsua, % 35etik % 15,5era
- Salmonella espezieak eragindako kasuen jeitsiera ere, % 47,5tik % 36era
- *Listeria monocytogenes* bakteriagatik jakinarazpenen igotze arina, %12tik % 15,5era pasatuz